



CLOUD-EN  
OINARRITUTAKO  
SISTEMAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**Fp**  
EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA



CLOUD-EN  
OINARRITUTAKO  
SISTEMAK

**HODEIKO ZERBITZUAK**



## HODEIKO ZERBITZUAK

Gure cloud sistema hedatzeko modu desberdinak ditugun bezala (non), martxan jar ditzakegun **zerbitzu mota** ezberdinak ere baditugu (zer).

Zer da zerbitzu bat? Erabiliko dugun edo gure bezeroen eskura jarriko dugun aplikazioa, tresna edo programa besterik ez da.

Honako piramidean hierarkizatu ohi dira:



CLOUD-EN  
OINARRITUTAKO  
SISTEMAK

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**Fp**  
EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA

# HODEIKO ZERBITZUAK






## HODEIKO ZERBITZUAK

Sailkapenak piramide forma du; izan ere, zerbitzua zenbat eta beherago egon, orduan eta ardura gehiago hartu beharko ditu bere gain erabiltzaileak.

Ezagutza tekniko gehiago beharko dira, baina, trukean, gure zerbitzuaren gaineko kontrol handiagoa izango dugu.



- + sinplea
- - kontrola
- + garestia



- + konplexua
- + pribatua
- + malgua



# HODEIKO ZERBITZUAK

## Infrastructure as a Service (IaaS)

IaaS zerbitzuetan, erabiltzeko prest dagoen ordenagailu birtual bat jasotzen du erabiltzaileak, baina sistema eragilea eguneratzeaz eta programak instalatzeaz eta mantentzeaz arduratu behar da.

Hutsik dagoen pisu bat alokatzearen antzekoa da. Jabea eraikina mantentzeaz arduratzen da eta gu, ordea, altzariak erosteaz, gure gustura apaintzeaz eta mantentzeaz: erosketa, garbiketa, sukaldea, konponketa txikiak...



# HODEIKO ZERBITZUAK

## IaaS - Abantailak eta desabantailak



- Prezioa
- Malgutasuna
- Pribatutasuna eta kontrola



- Segurtasuna
- Ezagutza teknikoak
- Mantentze-denbora




# HODEIKO ZERBITZUAK

## IaaS - Adibideak

Informatika-enpresei edo IT talde propioa duten enpresei zuzendutako zerbitzua da.

- Amazon EC2
- Microsoft Azure Virtual Machines
- Google Compute Engine





# HODEIKO ZERBITZUAK

## Platform as a Service (PaaS)

PaaS-etan, erabiltzaileari plataforma batera sartzeko zerbitzua ematen zaio. Plataforma horretan, bere programak instalatu eta mantendu ditzake, baina ez da sistema eragilea instalatzeaz edo eguneratzeaz arduratu behar.

Altzariz hornitutako eta oinarrizko zerbitzuak barne (ura, argia, internet) dituen pisu bat alokatzearekin alderatuko genuke. Jabea altzariak eta etxetresna elektrikoak ere konpontzeaz arduratuko litzateke.





# HODEIKO ZERBITZUAK

## PaaS - Abantailak eta desabantailak



- Garapen-abiadura
- Eskalagarritasuna
- Mantentze-lanak



- Hornitzaile-menpekotasuna
- Pribatutasuna
- Malgutasuna




# HODEIKO ZERBITZUAK

## PaaS - Adibideak

IT enpresei edo garatzaileei zuzendutako zerbitzuak izaten jarraitzen dute.

- Heroku
- Google App Engine
- Microsoft Azure App Service





# HODEIKO ZERBITZUAK

## Software as a Service (SaaS)

SaaS zerbitzuetan, sistema osoa mantentzeaz arduratzen da enpresa hornitzailea eta gu kontratatutako aplikazioetara zuzenean sartzen gara.

Zerbitzu guztiak barne dituen hoteleko logela batengatik ordaintzearen berdintsua litzateke: ez dugu eraikina mantentzen, ezta altzariak ere, ez dugu garbitzen, ez dugu sukaldean aritu beharrik ere... Bertan bizitzeaz soilik arduratu behar dugu.



# HODEIKO ZERBITZUAK

## SaaS - Abantailak eta desabantailak



- Sinpletasuna
- Eskalagarritasun osoa
- Mantenimendu osoa



- Prezioa
- Pribatutasuna
- Menpekotasun osoa




# HODEIKO ZERBITZUAK

## SaaS - Adibideak

Egunero erabiltzen ditugun web zerbitzu guztiak SaaS dira:

- ChatGPT, Wordpress
- YouTube, Twitch
- WeTransfer, Strava, Discord





# HODEIKO ZERBITZUAK

## SaaS - Kategoriak

SaaS-ak, nori zuzenduta dauden kontuan hartuta, bi kategorietan bana daitezke:

- **SaaS Business to Business:** enpresei zuzendutakoak, azken erabiltzaileei zerbitzua emango dietenak
- **SaaS Business to Consumer:** zuzenean azken erabiltzaileentzat




# HODEIKO ZERBITZUAK

## SaaS - Kategoriak: Business to Business

Merkatuaren araberako adibideak:

- ERP: SAP edo Microsoft Dynamics
- CRM: Salesforce
- Bulegotika: Microsoft 365 edo Google Workspace
- Kontabilitatea: Sage, Holded edo Contaplus





# HODEIKO ZERBITZUAK

## SaaS - Kategoriak: SaaS Business to Consumer

Adibideak:

- Streaming zerbitzuak: Netflix edo Spotify
- Biltegiatzea: Dropbox edo Google Drive
- Sare sozialak: Facebook edo Instagram
- Produktibitate pertsonala: Notion edo Todoist







# HODEIKO ZERBITZUAK

## Espezializazio handiagoa

Azkenik, gaur egun behar den espezializazio-maila dela eta, "aaS" zehatzagoak sortzen ari dira:

- Desktop as a Service (DaaS)
- Artificial Intelligence as a Service (AlaaS)
- Big Data as a Service (BDaaS)





CLOUD-EN  
OINARRITUTAKO  
SISTEMAK

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



# HODEIKO ZERBITZUAK

## Laburpena

Enpresa gehienentzat zerbitzu interesgarrienak SaaS izango diren arren, garrantzitsua da mailen arteko aldeak ezagutzea. Ikusi dugunez, erabakia malgutasunaren, pribatutasunaren, kostuaren eta ezagutza teknikoen arteko orekan oinarrituko da.





CLOUD-EN  
OINARRITUTAKO  
SISTEMAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).

